

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA**

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzua

Interesdunei jakinarazi ezin izan zaizkien jakinarazpenak

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik ondokoei ezin izan zaie jakinarazi honako informazioa; beraz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aipatutako artikuluko horrek eskatzen dituen jakinarazteko ahalginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie ondoan adierazitako prozedurei dagozkien administrazio egintzak bertaratuta jakinarazteko:

Interesdunek edo beren ordezkariak gehienez 15 egun natural izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera agertzeko. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuaren bulego kudeatzailan (Samaniego kalea, 14. Gasteiz) aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 8:15etik eta 14:30era bitartean, zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduren berri eman diezaien.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 31

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuaren burua
ANTONIO ESPINOSA LÓPEZ

IFZ	SOZIJATEAREN IZENA	PROZEDURA
B48480685	AKETXE LUR LAN SL	Ebazpena
H01260611	CDAD PROP PASEO ZUMAQUERA 46	Datuak argitzea
H01102334	CDAD PROPIETARIOS C/ SAN VIATOR N° 1	Ebazpena
H01230622	CDAD PROPIETARIOS GARAJES PEDRO ASUA 11-27	Ebazpena
B01058163	CONSTRUCCIONES PICO ARABA SL	Ebazpena
P0100011F	JUNTA ADMINISTRATIVA DE ARECHAVALETA	Ebazpena
P0100163E	JUNTA ADMINISTRATIVA DE MENOIO	Ebazpena